Mugarriak bidelagun

Iñigo Bullain. Algorta

Hileotan munta handiko zenbait gertaera jazokizun dira Europan. Besteak beste: 10 Estatukide berriren atxikitzea; Europear Parlamentarako hauteskundeak eta Europarako Konstituzioaren testuaren hitzarmena. 50 urteotan, Europear Erkidegoak martxan jarri zirenetik, egungo Europear Batasunera inoiz baino Estatu eta hiritar gehiago biltzera heldu ahal izan da. Ez da, zinez, marka makala, batik bat Europaren historiari begiratuz gero, zeinetan XX. mendearen lehenengo erdian bi gerrate ikaragarri eta totalitarismorako jarrerak nonahi zabaldu baitziren. Hala eta guztiz ere, anitz jenderentzat Europa urrun dago, beste nonbait, Brusela edo Estrasburgen, gugandik urruti. Banago, ordea, europearrak garela eta hau guztiau ere Europako aldea dugula. Ber moduan badakit, ezen hori ikusi eta ulertzea gaitz egiten zaiola jende batzuri, bereziki nazionalismoen -gure artean badira batzuk- habeez inguraturik daudenei. Irakurle otoi beha, iragan Pazku egunetan, Europako alde honetan, familiarekin Donemiliagan bizi izanaren adibidea.

Goiz euri eta lanbrotsuan gerturatu ginen egun Demanda deritzan - lehen *Arandio*, *Distercios* - mendilerro zoragarrira, asmoan genekarlarik han Suso eta Yuso (Goiko eta Beheko) monastegietara bisita egitea. Gurearen antzeko xedez haraturiko lagun aldra ikusirik, bisitaldia Yusora mugatu behar izan genuen. Yuso monastegiaren sarbidean bizitariak marmolezko bi plaka handi ikus ditzake oroigarri gisa. Biak gasteleraz. Bata 1973koa; bestea 1974koa; biak ala biak, beraz, frankismoaren garaikoak. Bata, gaztelera hizkuntzaren lehengo hitzen milaurtearen gorazarre; bestea euskaraz idatziriko lehen eleen milaurtea omenaldi. Oroitarrien gainean gidariak nabarmendu zuen -propaganda turistikoak bezalaxe- bertoko monastegia zela gazteleraren sorleku, han izkiriaturiko Glossae Emilianensis ondo frogatzen duen legez. Euskarari buruzkoaz esan zigun glosen egile ezezaguna *vascoa* zatekeela.

Alabaina, han ikusi eta entzunikoak gogoeta egiteko parada ekarri zigun eta banago honetaz zerbait argitzeko eta zehazteko badela ordu eta oren. Hortakotz, irakurlearen eskura ekarri nahi nituzke gogoeta batzuk. Esaterako, Garcia Turza anaiek argitara emanikoaz aparte -diodan bidenabar ezen ehun bat urtez aintzinatzen dutela erromantzearen sorrera , 964. urtera, alegia-, dudazkoa da Glossae Emilianensis loriatuetan biltzen diren hitzak doitasunez eta propietatez hitz eginez, erran litekeen gaztelerazkoak direnik. Ikus dezagun, besterik ez bada ere Codexeko 72.orrialdean dioena:

> *Cono aiutorio de nuestro dueno dueno Chisto,*
> *dueno salbatore, qual dueno get ena honore et*
> *qual duenno tienet ela mandatione cono patre*
> *cono spiritu sancto enos sieculos delo sieculos.*
> *Facamus Deus Omnipotes tal serbitio fere ke*
> *denante ela sua face gaudioso segamus. Amen.*

Ikerketa filologiko batzuen arabera glosetan ageri diren hainbat hitz gaztelera zaharretik ere urrun daude: *spillu*, *muitu*, *feito*, *geitar*, *aflarat*, *aplecat, ies, iet, une, faca, ayutorio, lueco, collitura, adduitos.* Hitzok gaztelera ekarriaz, honetara dira: espejo, mucho, hecho, echar, hallara, allega, es, haga, ayuda, luego, cogedura, ducho. Honako hau jasotzen du Gil del Rio-k "*Los Berones*" liburuan, baita Criado del Val irakasleak ere glosei buruz idatzitakoak, dioela: "Tanto las glosas emilianenses como las silenses muestran un decidido propósito consciente de transcribir términos romances, pero están alejadas del núcleo verdaderamente castellano. Ambas son reflejo del dialecto navarro-aragonés y están muy influenciadas y presionadas por el vascuence, que en esta época ocupaba un área mayor que en la actualidad, ya que penetraba en el valle de Ojacastro, lindante con el monasterio de San Millán".

Ez gal gogotik ezen glosa horiek idatzi ziren garaian, XI. mendearen hondarrean, San Millán de la Cogolla-Donemiliaga Kukulagako eta ingurua, egun Errioxa deritzaguna, Nafar erresumaren parte zela. Hain zuzen ere, Yuso monastegiaren sorrera Naiara eta Pamplona Erresumari sor

zaio. Beraz, inguruan hitz egiten zenaren erromantzea Erresumako erromantzea zatekeen eta ez gaztelarena, hala nola gaztelar historiografiak behin eta berriz errepikatzen duen.

Zenbait mende geroxeago, XIII. ean, monastegietatik ezin hurragoko herriska batean jaiorik, Gonzalo Berceokok -zeini euskara ez zitzaion arrotz- berak idazten zuen hizkuntzari *roman paladino* deitu zion eta ez gaztelera, bertso famatuetan dioenez:

> *"Quiero fer una prosa en román paladino, en qual suele el pueblo fablar con so vezino, ca non so tan letrado por fer otro latino, bien valdrá, como creo, un vaso de bon vino ".*

Bestalde, eta euskerari dagokionez ere, egin ditzagun zenbait zehaztasun. Glosetan euskaraz idatzitako lehen hitzak -zenbait oroitarrritan jasotako protoeuskara edo izen akitaniar aparte utzirik- marginean izkiriaturik datoz. Hona hitz famatuak:

Içioqui dugu,
guec ajutu ez dugu

Ez gara orain eta hemen hitz horien esanguraz arituko, baina bai esan dezakegu glosadore ezezagun hura euskalduna izan zela. Euskaldun eleanitza hain zuzen, erromantzea eta latina ere baitzekien -dakigunez, glosak atxikituak daude latinezko testuari, preseski ere, bere esanahia errazteko asmoz-. Ez dakiguna, ordea, informazioak errepikatzen duenez, fraide hura vascoa (vascona) ote zen. Baina baliteke vascofono hura, orduko Nafarroan eta Nafar monastegian izanez gero, nafar izatea, Nafar euskaldun eleanitza.

Halaber, propagandak ixiltzen badu ere, monako haren euskalduntasuna ez zakekeen kasualitatea, monastegiaren ingurune zabala euskalduna zenez gero. Ezaguna denez, aldameneko bailarek (Oiacastro, Ezkarai...) euskarari eutsi zioten mende luzez. XIII. mendean bertako erabaki judizial edo *fazanya* batek adierazten duenez -horretaz vid. "*Arabako Euskal Hotsak*" liburuan Estibaliz Breñas eta Jabi Otsoa de Alda autoreek 109.orrialdean jasotakoa-. Bestetik, harrigarriagoa dirudiena baina garaiko Axularren aipua Euskal Herriaz "eta bertze aunitz lekutan" gogora dakarrena, alegia, XVII. mendean ere euskaraz egiten omen zen Kalahorra eta Ozkabarteko Elizbarrutian. Gil del Rio idazle errioxarraren lehen aipaturiko liburuan, 77.orrialdean, elizbarruti hartako "*Constituciones Synodales antiguas y modernas del Obispado de Calahorra y la Calzada "* deitu liburuan jasotzen denez, auziak izan omen ziren orduko elizbarrutiko euskaldunei predikuak euskaraz ez egiteagatik, haietako zenbaitek "...y que la gente que viene de las caferias à oirlos, como no faben Romance, fe tales ayunos del Sermon" , erromantzea ez baitzuten ulertzen.

Zernahi gisaz, ene ustez, Merino Urrutia ikertzaileak landu ildotik, anitz dirateke aurrerantzean jaso ditzakegun datu berriak Errioxaren euskalduntasunaz, bai eta Errioxaren europeartasunaz, nafartasunaz eta bertako erromantzeaz. Permiti bekit ondorio batzuk ekar ditzadan.

Bat. Lan eskerga egiteke dago gure Europako zonaldearen historiaz. Oraindaino historiografia nazionalistak nagusitu dira eta, ondorenez gugana helarazitako historiaren kontakaria, politika eta politikerietara makurturik baitago. Honen konparatione ederra Errioxan bertan topa dezakegu. Ikusi ahal izan dugunez espainiar historiografiaren arabera hortxe dago gaztelaniaren sorrera, delako baiestapen hori zeharo zalantzagarria izan arren. Oro har, espainiar historiografiak Errioxaz bezainbatean erori nabarmena du Gaztelaren historia goratzearen aldera. Aldiz, Nafar zein euskaldunekiko loturak isilean gordetzen du.

Bi. Ene ustez, euskal historiografia zinezkorik ez dago. Orain arte, salbuespen bakan batzuk izan ezik, egin dena espainiar historiografian oinarri harturik egin izan da. Bestaldetik, abertzaletasuna ez da inoiz eroso izan Errioxaren euskalduntasunaren aztarnen eta zantzuen aurrean. Keltibero omen zirelako argudioaz baliaturik, gehienetan ezaxolaz jokatu izan ohi du. Baina Gaztela-Espainiaren handitasunaren lotsagabekeriak inor gutirentzat ustekaberik ez izan arren, harrigarria da vascoen, eta oro har ikurrinzaleen isiltasuna eta bazterkeria Errioxak Nafar estatuari eta euskarari ukan dien atxikiduraz.

Hirur. Axolagabekeria horrek badu, ene aburuz, zenbait zio eta labur bada ere, horietako nagusietako batez irakurlea ohartarazi nahi nuke: Bonaparteren karta, Zazpiak Bat entzutetsuaren mapa, alegia. Honek ere, merezi ditu zenbait zehazkizun. Horra non euskal (?) abertzaletasun Euskadiri atxikiarentzat, esan nahi baita, XIX. mendearen bukaeran Aranaren eskutik *JEL* lelopean abian jarri izan zenarentzat, zein Frankoren diktaduratik *ETA* inguruan sortu zenarentzat, bitzuentzat, Bonaparte printzearen karta linguistikoa Euskadi-Euskal Herriko mapa politiko-kultural ikutuezin bihurtu da. Ondorioz, karta horretatik at dagoen beste lurralde eta populuei agur esan zaie.

Baina Bonaparteren karta, printzearen beraren bultzadaz eta laguntzaz osatua -ez dezagun ahast- karta linguistiko izateko xedez egin izan zen. Mapa hau XIX. mendearen hondarrekoa da, Londonen 1863an argitaratua, orduko muga administratiboak jasotzen ditu, Frantziak eta Espainiak ezarriak. Hortaz, kartan agertzen da 1800 urtean printzearen ottoak, Napoleon txiki-handiak sorturiko Departement des Basses Pyrennées (Pyrinio Aphaletako Departamendua). Hala ere, ez osorik, zati bat baizik, ezen Biarnoaren aldea ez baita agertzen, bai ordea honen barrutiko Arrondissements de Bayonne et de Mauleon. Bestetik, mapak jasotzen ditu 1830 hamarkadan Javier de Burgosen espainiar probintzien araberako mugak. Izan ere, karta linguistikoa izan arren "*Carte des sept provinces basques montrant la délimitation actuelle de l'euscara*" beronean isladatzen diren euskalkien azpitik eremu administratiboak departamendu eta probintziarenak dira eta grafia ofizial espainiar eta franziarren arabera gainera: Vizcaya, Alava, Gipuzcoa, Labourd, Basse Navarre, Soule, Navarra eta beronen Partidoak- Pamplona, Aoiz, Estella, Tafalla, Tudela. Maparen muinaren bazterretan, *Zazpiak Bat* delakoa inguratuz, zurizko eremua zabaltzen da. *Neant*. Ezerez horretan, zenbait hitz besterik ez da: Ocean Atlantique, Santander, Burgos, Logroño, Zaragoza, Huesca, Arrondissement d'Oloron, d'Orthez, Departement des Landes.

Laur. Hala eta guztiz ere, ordudanik urak egin du bidetik, eta, ene ustetan, Bonaparteren kartarik abertzaleek totem politiko kulturala atera dute, nahasi egiten dutelarik kultura eta politika. Horrenbestez, batetik, karta kulturala mapa politiko bilakatu da, eta, bestetik, XIX.mende hondarreko Euskal Herria betiko eta gerorako Euskal Herria izango bailitzan irudikatu. Eta hortik ere D'Abbadiek bultzaturiko Zazpiak Bat delakoa, berau ere izate eternaleko bailitzan. Zazpi probintzi, edo agian sei, baina inor ez ezer gehiagorik ez. Beraz, Agur Errioxa!, Adio Akitania!. Ikusmira horren arabera, Ebro ibaia da, izan da eta izanen da muga. Ebroren zabalera Harotik Alfaroraino, Donostian Urumearena edo Bilbon Ibaizabalarena edo Iruñan Argarena edo Baionan Atturriarena tamainakoa izan arren, alegia, inongo muga fisikorik ezar ez dezakeena. Baina horrek ez du axolarik, ezen eta, Bonaparteren Kartaren arabera, Ebro hegoaldean ezdeusa besterik ez baitago. Gauza jakina baita mapei begira mugak sinetsgarri egiten direla, haisu eta zilegi mugak ezartzea.

Bortz. Karta fedearen ikur erara hartu ohi da abertzaleen artean. Lehen erlijioari eman zitzaizkioten atxikimendu itsuaz, lotu zaizkio orain mapari, integrista edo fundamentalista suharrak bailiran. Horrela, europear Estatua izan zena, kasik mila urtez, -vid. Urzainquiren "*Navarra Estado Europeo*" lan fermu eta gotorra- orain beste lurraldeen maila berean jarri eta hartu da, ontzat eman Nafarroa zazpietako probintzia baino ez dela. Ikusmolde horren arabera, Euskal Herriaren historiak XIX. mendean du bere hasiera, Foruen galerarekin batera. Nolabait badirudi ezen abertzaletasunak onartu egin duela espainiar historiografiak euskaldunentzat prestaturiko "*exceptio kulturala*" alegia, gure historia aurrehistoriak eta foruek osatzen dutela. Zibilizaziotik aparte lehen, zibilizatuak gero Gaztela eta Espaniari esker, asko kostata jakina. Hortaz, erromatar eraginari buruzkoaz, edo Nafar estatu europearraz, zenbat eta gutiago jakin hainbat eta hobe. Europako indioak, indigenak baikina irudika gaitzaten utzi dugu eta irudi hori onetsit dute batzuek eta bitzuek. Horra zer den kolonizaturaren syndromea.

Sei. Aitzitik, Europako alde honetan ere, erromatarren eragina biziki handia izan da. Mundua ulertzeko era eta molde gehien-gehienak gainerako europearrekin partekatzen ditugu. Orobat, erromatarrak eta vascoiak biziki ondo ulertzen zuketen elkar. Segura irakaslearen arabera, beronen " *Mil años de historia vasca* " lan guztiz interesgarrian, erromatarrek keltei gerra gordina egin ondoren, vascoien eskuetan utzi zituzten zenbait hiri, Kalagurris eta Grakurris, Calahorra

eta Alfaro, lehen ere, antza denez, hiri vaskonak zirenak. Geroztik, vasconen atxikipena Inperioari arras handia izan omen zen, ezen erabateko ezinikusia hartu baitzieten inperioaren etsai amorratuenei, gotoei. Izan ere, Iruiña-Pamplona inguruan sorturiko erresuma, hau inperioaren jarraipentzat hartu omen zuten Europako beste muturretik etorritako barbaroen kontra, westgotten (visigotoen), hots, mendebaldeko gotoen aurka. Eta, hain zuzen ere, euskaldunak berak sortu zuen, latina garatzean, zenbait erromantze, Ebro ibarrean nafar-errioxera, eta Garona ibaiaren ertzetan gaskoin mintzaira (*Wascoera*). Beraz, lingua navarrorum ez bakarra baino bi edo hiru direla esan genezake. Hirurak eskual-uskal-euskaldunenganik sortuak, Euskal Herrian jaioak.

Zazpi. Inguraturik segi ahal dezakegu zedarri national-nacional-nazionalaren barne. Hala ere, gure artean, Europako alde honetan, Navarralde honetan, bestelako Europarik posible da. Garona eta Urbion arteko hiritarrak hurbilduz, europear gizartea ehunduz. Gizarte europearra bildu nahi bada, mugaz haraindiko hariak bilbatu beharra dago. Halaber, elkarren arteko harremanak garatu ezean ez da politikarik, ez baldin bada fikzio politikarik. Amnesiak jota dabilenari oinarri guti.